

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Lehendakariak proposatuta, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkeztu da, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren 2022ko urtarrilaren 13ko bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Nafarroako Parlamentuak bere doluminak helarazi nahi dizkio Sara Pina Yerequiren familiari, eta aldekotasuna adierazten die haren lagunei eta Castejongo hezkuntza-komunitateko irakasleei. Hainbestearinoko astinaldian eta saminean, Nafarroako Parlamentuak bipilki agertzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen eta errefusa.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakume guztiei eragiten die, edozein delarik ere haien adina, posizio sozioekonomikoa edo nazionalitatea. Errepikatu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria oinarriturik dagoela maila sinbolikoan eta materialean gizonak emakumeen gainetik kokatzen dituzten botere-harreman batzuetan, helburu dutenak emakumeak gizonekiko sumisio-egoera betikotuan bizi daitezen.

Emakumeen aurkako indarkeria mamitzen da forma eta jarrera ezberdinetan, kalte edo oinaze fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoak sor ditzaketenak; emakumeen duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako erauntsi latza da eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa larri eta onartezintzat jo beharrekoa. Horrelako gertakari bakoitza detektatu, ikusbidean jarri, errefusatu eta gaitzestea ezinbestekoa eta urgentea da emakumeen aurkako indarkeriaren agerpen ororen prebentzioan integritasunez jarduteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau azaltzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Tuterako bizilagun Sararen hilketa, eta bere elkartasuna adierazi nahi die hildakoaren familiari eta ingurune hurbilari une latz honetan.
2. Nafarroako Parlamentuak beste behin ere berresten du errefusatu eta gaitzetsi egiten duela gure gizartean gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro, eta konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten, segurtasuna hobetzen eta emakumeek ingurune orotan askatasun osoa baliatu ahal izatea bermatzen laguntzeko.
3. Nafarroako Parlamentuak, erakunde publikoa den aldetik, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak tokian-tokian ezartzen dituen betekizunak betetzea bermatzeko konpromisoa hartzen du.
4. Nafarroako Parlamentuak gizarte osoari dei egiten dio emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria betikotzen duten rol eta estereotipo sexistetan oinarritutako kultur eredia alda dezan, bai eta indarkeria matxista errefusatzeko jarrai dezan eta indarkeria matxistetatik bizirik atera diren emakumeei babesa ematen jarrai dezan ere.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei gonbit egiten die ez daitezen ezer egin gabe gelditu emakumeen aurkako indarkeriaren eta erasoen aitzinean, eta emakumeek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea dutela erreklamatzeko.
6. Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak elkarretaratzea egingen du ostegunean, urtarrilaren 13an, eguerdian, erakundearen atarian, hilketa hau beste behin gaitzesteko eta emakumeen kontrako indarkeria oro errefusatzeko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

HUALDE
IGLESIAS
UNAI -
72675592P

Firmado
digitalmente por
HUALDE IGLESIAS
UNAI - 72675592P
Fecha: 2022.01.12
14:13:18 +01'00'

LEHENDAKARIA
UNAI HUALDE IGLESIAS